



Urdinez dena ikasleek kopia dezakete, irudiak fotokopiatuak eman daitezke, baita hiztegia ere. Simetria zentralaren irudian, kalko-paper bat utz daiteke arrainarekin, itzuli-erdia erakusteko.

1. Zuzen batekiko bi figura simetriko ezagutzea (6. mailakoa berraktibatuz, ardatz-simetria)

Definizioa: Bi figura (d) zuzen batekiko simetrikoak dira, zuzen horretan plegatzean irudiak gainezartzen badira.




Hiztegia: Erraten da:

- (F) eta (F') figurak (d) zuzenarekiko simetrikoak direla.
- (F') figura (F)-ren irudia dela, (d) ardatzarekiko simetriaren bidez.
- (d) zuzenari simetria-ardatza deitzen zaio.
- Puntua eta bere irudia muturtzat dituen segmentuaren erdibitzailea (d) zuzena da.

2. Puntu batekiko bi figura simetriko ezagutzea (simetria zentrala)

Definizioa: Bi figura puntu batekiko simetrikoak dira, puntu horrekiko itzuli-erdia eginez elkar gainezartzen badira.

Adibidea: (F) eta (F') bi figura hauek O puntuarekiko simetrikoak dira.



Kalko papera eta konpasaren punta erabiliz, ikusten da (F) arrainak itzuli-erdia egiten duela (F') arrainarekin bat egiteko.


Hiztegia: Erraten da:

- (F) eta (F') figurak O puntuarekiko simetrikoak direla.
- (F') figura (F)-ren irudia dela, O zentroko simetriaren bidez.
- O puntuari simetria-zentroa deitzen zaio.

Kaieran idaztekoa jardueraren B zatia egin eta gero.

3. Puntu baten simetrikoa puntu batekiko

Definizioa: M' puntua O puntuarekiko M -ren simetrikoa izateak erran nahi du O puntua $[MM']$ segmentuaren erdigunea dela.



Kasu berezia: O zentroaren simetrikoa O puntua bera da.

Adibidea:

